

Ainhoa Larrañaga

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Elkarbizitza norekin eta norentzat?

Lehen eskuko informaziorik ez daukagunontzat eta ikusle soil garenontzat, kosta egiten da Eusko Legebiltzarrean sortu den batzorde berriaren izaera eta helburuak ulertzea. Bakea eta elkarbizitza termino potoloak hartu dituzte euren zereginaren oinarri. Baina gatazka iturri eta zirkulo mediatiko antzu bilakatu da askorentzat.

Notizia ez da batzordearen sorrera, Aralarreko hiru legebiltzarkideek, batzordearen aldeko bozka emateaz gain, ekimenaren lidergoa hartzea eta Legebiltzarreko hainbat alderditako buruzagiren zorion eta txaloak jasotzea baizik. Legeak eskaintzen duen aukera baliatu dezakete eta karguari eusteko eskubide eta askatasun osoa daukate, eta horrek, galdera baten aurrean kokatzen gaitu: ordezkaritza politikoa herriari ala alderdiari zor zaizkio? Euren jokabidearen argudio izan dira kontzientzia eta koherentzia politikoa. Nik neuk nekez ulertu nezake hirukotearen jarrera: Lehenengo, batzordeak fruitu emankorrik nekez emango duela; bigarrenik, Aralarreko afiliatuek demokratikoki aukeratutako zuzendari-tzaren aginduari entzungor egin diotelako; eta azkenik, herri honetako benetako arazoak ezkutatzeko laino geruza sortzea besterik lortuko ez duelako.



JUDITH FERNANDEZ

Badirudi, lege kanporatutako ezker abertzaleak idatziz soilik izango duela batzordean parte hartzeko aukera. Bizi dugun egoera politikoan, bakea eta elkarbizitzarako eragileetako bati, bigarren mailako parte-hartzea eskaintzen bazaio, logikoa da gonbidapena ez onartzea. PPren betoa izango duen batzordean ezker abertzaleak parte-hartu nahi ez izatea logikoa da edozein ikuspegitik. Zertarako eta norentzako balioko du orduan, batzorde honek?

Krisi ekonomikoaren aitzakiapean oinarritzko zerbitzuetan murrizketa sakonak bizi ditugun honetan, guztion diruarekin ordaintzen ditugun parlamentariak asteazkenero mahai baten bueltan bilduko dira, ipar garbirik barik eta alde aurretik dakigun moduan emaitzarik ez lortzeko.

Ekimen hauek eraginkorrak ez badira, badago zeri heldua sasoi hauetan.

Egoera politikoak aurrerabide argirik gabe jarraitzen duenean, batzorde honek, anestesia funtzioa beteko du, futbolak, Borboiaren elefanteak eta Urdangarinen iruzurrak bezala.

Joseba Sarrionandiaren baita emenarekin: *Galduak gara behelaino artean?* ■



Bizi dugun egoera politikoan, bakea eta elkarbizitzarako eragileetako bati, bigarren mailako parte-hartzea eskaintzen bazaio, logikoa da gonbidapena ez onartzea

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



maitasuna, hilgarria izan liteke. Ez da kasualitatezkoa “nirea zelako akabatu nuen” mexikar kantaren arrakasta, azken bi tragoekin edonor kantari ematen zuena. “Ez nazazu hainbeste maite, utz nazazu ni izaten” izan liteke patologia horren sendatzeko kanta baten errepika egokia. Burutazio hau erakarri dit atez ate Gipuzkoako etxe barruetara zabor ideologikoa zabaltzen duen *El Diario Vasco* erdaldunak. Kirol orrialdeetan zekarren Unai Emery hondarribiarrarekin egin elkarrizketan, Realera ekarri nahi eta ezin adierazten zuen, Montanier kanporatzea xede. Gogoan dut Ormaetxea kanporatzeko

Gehiegizko

ahaleginetan jardun zuen garaia, *Luis de Andia* aterkipean ezkututzen zen Acosta izeneko batek zuzendu kanpainak lortu zuena, John britaniarra ekarri arte lasaitu ez zena, ondoren bere burua honen menpe ezarri zuena morroi bilakaturik. Hastapenetik berripaper tanke honek Montanier izan du diana, bere jomuga Real berea delakoan eta ez beste inorena, politika eta gizarte sailtan Bildukoak dituen bezalaxe Gipuzkoa maitasun. “Ez gaitzazu hainbeste maite, utz gaitzazu bakean guk izaten euskara maitasun”. Eta kanta aurkeztu nola, eguneroko errauskailu ideologikoa martxan eman zuen. ■

